




## EAEko merkataritzaren salmentak %5,3 gehitu ziren

Merkataritzako indizea  
Urte bakoitzeko lehen hiruhilekoa




Iturria: Eustat.

**2022ko lehen hiruhilekoan, merkataritzako salmentak %5,3 hazi ziren aurreko urtearekin alderatuta.**

Aurten lortu den maila azken hamabi urteetako altuena izan da. Gehikuntza tasa bereziki esanguratsua izan zen handizkako merkataritzan (%7,8). Beste muturrean, ibilgailu motordunen salmentak %7,3 egin zuten behera.

## Zerbitzuen jarduera %13,6 handitu zen

Zerbitzuen indizea  
Urte bakoitzeko lehen hiruhilekoa




Iturria: Eustat.

**Beste aldetik, zerbitzuen indizea, urte arteko tasan, %13,6 hazi zen lehen hiruhilekoan.** Bultzada sendo horri esker, indizeak aurreko bi urteetako mailak hobetu zituen eta pandemiaren aurreko zenbakietara hurbildu zen. Azpimarratzekoa da ostalaritzaren (%37,8) eta garraioaren (%20,9) bilakaera ona.



## Esportazioak %21,7 hazi ziren martxo arte

Ondasunen esportazioak atzerrira  
Urte bakoitzeko lehen hiruhilekoa. Milioi euro




Iturria: Eustat.

**Atzerrira bidalitako ondasunen esportazioak %21,7 handitu ziren 2022ko lehen hiruhilekoan.** Guztira, saldutako produktuen balioa 7.391 milioi eurokoa izan zen, hiruhileko batean inoiz erregistratu den kopururik handiena baita, baina kontuan hartu behar da hazkunde horren zati handi bat prezioen igorri zori zaiola.

## Atzerritarren afiliazioak gora egin zuen apirilean

Atzerritarren afiliazioa  
Balio absolutua



Iturria: Gizarte Segurantzaz.

**Apirilean, atzerritarren afiliazio kopurua %10,4 handitu zen 2021eko hileko beraren aldean.** Guztira, atzerriko naziotasuna duten 76.808 pertsona daude afiliatuta, hots, Gizarte Segurantzako afiliazio guztietatik %7,8 bereganatzen dute atzerritarrek.